

Programa soziala



carta de los
derechos sociales

euskal herriko
eskubide sozialen *karta*



Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta sinatzen dugun erakunde sozial eta sindikalek bizitzaren jasangarritasuna erdigunean kokatuko duen gizarte eredu defendatzen dugu. Norabide horretan funtsezko aurrerapausoa litzateke dokumentu honetan jasotzen diren neurriak hartzea. Halaber, ziur gaude gure helburuak lortzeko mobilizazioa ezinbestekoa dela. Aliantza sindikal eta sozial sendoa behar dugu, izaera kritikoarekin, proposamenak egin eta lehentasunak adosteko gaitasunarekin. Karta funtsezko tresna da, Euskal Herrian ezartzen ari diren politikak errotik aldatzeko beharra du abiapuntu, eta gizarte eredu alternatiborako gure proposamena jasotzen du.

EAEko eta Nafarroako Foru Erkidegoko esparru arauemaileek bermatu eta sustatu behar dute Kartan jasotzen diren eskubideak Hego Euskal Herrian (HEH) egikaritu ahal izatea. Eskubide Sozialen Kartak gai ekonomiko eta sozio-laboraetan erabakitzeko erabateko eskumena eskatzen du, eta gure tresna propioen eraikuntza (arauemaileak, instituzionalak etab.). Subiranotasun prozesu eraginkor hau gauzatzea gure lanaren eta enplazamendu politikoaren parte da. Erabakitzeko ahalmen hau garrantzizko gai guztiei zabaldu behar zaie, herritarrei eragiten dieten gaiei, eremua edozein delarik ere.

Horrekin batera instituzioei exijitzen diegu dokumentu honetan jasotzen diren neurri zehatzak berehala har ditzatela. Konpromiso zehatzak hartu behar dira eta beharrezko finantza baliabideekin hornitu, konpromiso horiek bete daitezten.

Ezartzen ari diren politika antisozialen ondorioz biztanleriaren pobretze orokortua ematen ari dela salatzen dugu. Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da. Langabezia, prekarietatea, pobrezia eta desberdintasun ekonomiko eta sozialak areagotzen ari dira, ez direlako egiten egoera irauli ahal izateko politikak.

Salatzen dugu Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta EAEko hiru Foru Aldundiak ez direla ari politika publikoen, aurrekontu politiken eta politika fiskalen orientazioa errotik aldatzeko beharrezko neurriak hartzen. Inongo instituziotan ez da ireki benetako parte hartzerako espaziorik ere, ez zerga-politikari heltzeko, ez aurrekontuak lantzeko.

Ustelkeria ez dago gure errealtatetik at. Adibide argia dugu Nafarroan. Bertan gobernu desberdinek, erregimeneko kide desberdinen lankidetzak edo babesarekin, diru-kutxa publikoak hustu egin dituzte, CAN arpilatu, alferrikako lan faraoenikoekin etorkizuna hipotekatu, kultur eta ingumen-ondarearen zati handi bat suntsitu, memoria berreskuratzea oztopatu edo zerbitzu publikoak narriatu dituzte. Apenas egon den Nafarroako Gobernuan presidenten korruptzio praktikak egin izanaren susmopetik salbu.

Bestalde, EAEn, Kutxabanken pribatizazio prozesua ikusi dugu. Esparru politikoaren gehiengoak, zenbait sindikaturen lankidetzarekin, elite endogamiko baten eskutan utzi du arabar, bizkaitar eta gipuzkoarren ondarea. Interes partikular eta alderdikoiak herritarren interes orokorren gainetik jarri dira, modu lotsagarrian.

Posible eta beharrezkoa da langabezia, prekarietatea, pobrezia eta desberdintasun sozialak larriagotzen ari diren politika hauek aldatzea. Elite politikoak, gehienetan botere ekonomiko eta finantzieroarekin bat eginda, oinarritzko gai hauetan duen erantzunkizuna saihestu egiten du. Bere irudiak bakarrik kezkatzen du, eta irudi hori propagandarekin eta gaizki deituriko elkarrizketa sozialeko mahaia bezalakoetan prebendak banatuz garbitu nahi du.

Hego Euskal Herriko instituzioetako 2015eko aurrekontuen eztabaidak erakutsi du nola, praktikan, alderdi politikoek alternatiba errealeen eztabaida ekiditen duten, aldaketa soziala eragotziz.

Gertatzen ari dena arbuizatzea ez da nahikoa, egoera errotik aldatu behar da eta eredu sozio-produktibo berri bat eraiki Euskal Herrian, oinarritzko beharrak asetzea oinarri duena; aberastasunaren birbanaketa; enplegua eta lanak; eskubideen unibertsaltasuna; sektore publikoaren lidergoa; interes kolektiboaren lehentasuna individualismoaren gainetik; politika ekonomikoaren ingurumen-eraginkortasuna eta eraginkortasun soziala; emakume eta gizonen arteko berdintasuna...

Horregatik guztiagatik, Eskubide Sozialen Kartarekin konprometitu garen erakunde sozial eta sindikalek Hego Euskal Herriko instituzioei eskatzen diegu:



AURREKONTU ETA POLITIKA FISKAL ETA SOZIALEAN ALDAKETA

1. Espainiako Gobernuak onartu dituen aurrekontu mugapen nahiz murrizketak ez onartu. Hego Euskal Herriko instituzioek ezarritako murrizketak atzera bota.

- Euskal administrazio publikoek, izan inposaketa dela medio, izan erabaki propioen bidez ezarritako murrizketak atzera bota.
- Hego Euskal Herriko instituzioek ez dituzte ez murrizketa ezta mugapen horiek ezarri behar.
- Espainiako Gobernuak ezarritako eskubide nahiz prestazioen murrizketak konpentsatu (pentsioak, langabezia, e.a.).
- Ezberdintasun sozialak areagotzen dituzten Hego Euskal Herriko instituzioek ezarritako murrizketa oro bertan behera utzi.

2. Ondasunaren banaketa bidezkoagoan lagunduko duen politika fiskal justu eta progresiboa.

- Goi mailako nahiz kapitalaren errenten mesedetan onartutako zerga murrizketak bertan behera utzi (PFEZ, Elkarleen Zerga, Ondarearen Zerga, e.a.).
- Diru-sarrera mota ezberdinek zerga berdinak ordain ditzatela.
- Gehienez bost urtetan lanarenak ez diren errenta guztiak gainbegiratzea, Ogasunez Ogasun ustelkeria fiskalaren kasuak azalaraziz.
- Paradisu fiskaletan kokatutako pertsona fisiko nahiz juridikoen jarduera ekidin.

3. Sektore sozial estrategikoak bermatzeko zerbitzu publiko propioak garatu.

Horretarako osasunean, hezkuntzan eta zerbitzu sozialetan gastu publikoa handitzea ezinbestekoa da, lehen urrats gisa Europar Batasunaren bataz bestekoarekin parekatuz.

4. Langabezia eta pobreziaren hazkundeari erantzuteko, prestazio sozialak handitzea.

- Prestazio duina langabezian dagoen pertsona ororentzat.
- EAEn eta Nafarroan prestazio sozialak arautzen dituzten legeak aldatzea, inor ez dadin pobreziaren mugaren azpitik geratu.

5. Honako eskubide hauek legez ezarri:

- Menpekotasun egoera ororen estaldura, herrialde guztietan baldintza berberetan emango den kalitatezko zerbitzu publikoaren bidez.
- 0-3 urteko zikloan nahiz gainerako hezkuntza mailetan (unibertsitatea barne) eskatzen den bezainbeste plaza eskaini, sare publikoan eta doan.
- Haurtzaroaren nahiz gazteriaren babes ekonomikoa.
- Alokairu sozialeko etxebizitza eskuratzeko aukera bermatu eta etxebizitza hutsen gaineko zerga ezarri.

6. Gure eredu sozio-produktiboaren antolaketan aitzindari izango den sektore publiko indartsua sustatu.

Euskal sektore publikotik arreta eta zainketarako eskubideak nahiz zerbitzu publikoen unibertsalizazioa bermatu; industrian inbertsio publiko zuzena bultzatu; energiaren ekoizpen eta komertzializazioaren gaineko kontrol publikoa, trantsizio eta burujabetza energetikoa ahalbidetuko duten ekoizpen eta jarduera jasangarriak bultzatuz; sistema finantzario publikoa sortu.



KALITATEZKO ENPLEGUA SORTZEKO POLITIKA

7. Kalitatezko enplegua defendatu, sortu eta banatuko duen politika ezarri:

- Soldaten hobekuntza nabarmena, bereziki baxuenak diren horienak.
- Ordezkaritza sindikalaren gehiengoaren adostasunik gabe ezingo da Enplegu Erregulazio Espedienterik aurrera eraman.
- Lanaldia 35 ordura murriztea.
- Lan nahiz negoziazio kolektiboaren erreformak atzera bota.
- Aparteko orduak ezabatu.
- Jubilazio adina aurreratu.
- Lanbidearteko Gutxieneko Soldata berria ezarri, Europako Karta Sozialaren ildoan.

JENDARTEAREN PARTE HARTZEA BERMATU

8. Institutuzio guztiak berregituratu, politika ororen diseinu, erabaki hartze eta kontrolean jendartearen parte hartze demokratikoa ahalbidetzeko.

- Politika publikoen ebaluazio, kontsulta eta erreferendum lotesle prozesu errealek ezartzea ezinbestekoa da.
- Eusko Jaurларitza, Nafarroako Gobernua nahiz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietan eragile sindikal eta sozialen parte hartzea ahalbidetuko duten bitartekoak ezarri.

9. Zorraren gaineko auditoria.

Zorraren gaineko herri auditoria sustatu eta ahalbidetu, zilegitzat jotzen ez den zatia ordaintzeari uko eginez. Prozesu honek soziala behar du izan eta instituzioekin elkarlanean garatu beharra dago, beharrezko informazio eta prestakuntza emanaz.

BIZITZAREN JASANGARRITASUNA ETA ONGIZATEA

10. Pertsonak, Herriak eta natura lehenetsi beharra dago multinazionalen etekinen gainetik.

- Bizitzaren sostengua lehentasun izango duen, pertsona eta herrien zerbitzura egongo den eredu sozio-ekonomiko baten alde.
- Pertsona nahiz herrien arteko elkartasun, justizia eta berdintasunaren alde.
- Eskubide sozial, laboral, kultural eta ingurumenari dagozkionak bermatu ahal izateko, geure eredu ekonomiko, sozial eta politiko propioa erabakitzeko eskubidea.
- Institutuzio guztiek TTIP delakoa arbuia dezatela.
- Energia berriztagarrien ekoizpena saritu, frackinga nahiz bere ikerketa gerarazi eta debekatuz; garraio publiko kolektiboa eta intermodalitatea sustatu; hondakinen murrizketa, berrerabilera eta birziklapena bultzatu; elikadura burujabetza...

11. Bizitzaren jasangarritasuna eta ongizatea bermatzeko, zainketa lanak sozialki aitortu eta banatu.

Lanaren gaineko ikuspegi integralean oinarritutako eredu ekonomiko eta sozial berria eraiki, pertsonak berezkoa duten interdependentsia aitortu eta herritar ororen bizitza duina izateko eskubidea bermatzeko duen lanaren gaineko ikuspegi integralean oinarritutakoa.



Etzeko eta zainketa lanen aitortza politiko eta soziala, lan horiek gizon eta emakumeen artean birbanatzeko neurriak hartuz. Horretarako geure jendartean nagusi diren familia, emakume eta gizon ereduak birformulatu nahiz zerbitzu publikoak garatu beharra dago.

12. Baldintza laboral eta sozialen berdintasuna bermatu, genero, adin, sexu joera, aniztasun funtzional edota nazionalitateengatiko diskriminazio oro ezabatuz.

DEMOKRAZIA ETA ESKUBIDE KULTURALEN DEFENTSA ETA HORIEKIKO KONPROMISOA

13. Askatasunen murrizketari ez.

Eskubide demokratikoen murrizketa nahiz sistema auzitan jarri eta Kapitalaren nagusikeriari aurre egiten dion mugimendu sindikal eta sozialaren kontrako errepresioa etengabea da. Hamaika erreforma eta neurri hartzen ari dira norabide horretan. Instituzioek protesta eta mobilizaziorako eskubide demokratikoa defendatu behar dute, berau murrizten duten neurriak arbuiatuz.

14. Emakumeen kontrako bortizkeriari aurre egin.

Emakumezkoek pairatzen duten zanaketa eta bortizkeria ekiditeko neurri eta politika transbersalak ezarri.

15. Euskara eta kulturaren normalizazioa.

- Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna exijitu eta Nafarroan Vascuenceren Legea bertan behera utzi.
- Euskararen normalizazio osoa eta bizitzaren alor guztietan euskaldunon hizkuntza eskubideen bermea xede izango duen hizkuntza politika berri baten garapena.
- Administrazio Publikoetan nahiz eremu pribatuan benetako plan eta neurri benetako eta normatiboak hartu, herritarrek zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea eta lantokian ere euskaraz harremantzeko eskubidea bermatzeko.
- Egungo hizkuntza ereduen sistema gainditu, ikasleria osoari euskararen ezagutza nahiz komunikazioa bermatzen ez dien aldetik.
- Geure ondare inmateriala babestu. Gure jendartea aberasten duen sormena bultzatu. Aniztasuna eta elkarbizitza sustatu.

16. Arlo ekonomiko nahiz sozialean ahalmen normatibo osoa eskuratzeko burujabetza prozesua sustatu.

Bestelako jendarte ereduak defendatzen dugunontzat, eremu ekonomiko eta sozialaren gainean erabakitze ahalmena funtsezko helburua da.

Aipatu dugunez, mobilizazioa da neurri hauek posible egiteko gure bidea. Horregatik, euskal jendarte osoari dei egiten diogu, hemen eta orain, prozesu hau bere egin dezan, euskal herritargoari agiri honetan jasotzen diren eskubide sozialak bermatuko dizkieten erabaki politiko eta instituzionalak har daitezen.